

geroxeago emakumeei zuzenduriko aldizkarietan ere agertuko ziren gaien zuzenean eta inolako disimulurik gabe heldu zielako. James Joycek sabelustea literaturgai bihurtu zuen bezala, Lessingek beste horrenbeste egin zuen hilerokoarekin. Hala ere, hilerokoaren normalizazioa aldarrikatu arren, nobelak ez ditu erabat baztertzen hari loturiko zuen egunetan bere gorputzari darion usinarekiko Annak azaltzen duen kezka neurrigabea da.

«Benetako gizonak»

Emakumeen orgasmoa da Lesingean liburuak heltzen dion beste gai interesgarrietako bat. Haren gainean hitz eginda zuden Freud eta britainiarren sexu bizitza aztergai zuten 1948ko *Kinsey txostena*, baina ez emakumeen ikuspuntutik. Kasu honetan ere, *The Golden Notebook*-ek adierazpen apurtzaileak kontserbadoreagoei tartekatzen ditu. Annak zantalzan jartzen du emakume batek gizon batekin sexu harremanak izan eta goza ditzakeela hura maite ez badu, edo klitori orgasmoa baginako orgasmoa baino hobeia izan daitekeela –ezekoan dago bera–, eta erabat ziur dago emakume batek *benetako gizon* baten beharra duela. Annaren ustez, gizon ingeles gehienak ez dira *benetako gizonak*; emazteekin zakarrak eta plazera emateko ezgai dira, berekoiak eta seme-alabeekin arduragabeak dira, eta, aukera izanez gero, idazkari gazte batekin ezkonduko lirake. Eta *benetakoak* diren gizon gutxi horiek ez dira leialak.

Gizonei buruz ematen duen irudiagatik nobela *zikiratzaile* izatea leporatu zion kritikari batek baino gehiagok, batik bat ezohikoa zelako liburu batek gizonak gizonen beraien ikuspuntuarekin bat ez zetorren ikuspuntu gordin batetik azaltzea. Dena den, *benetako gizona* leloak badu aintzat hartu beharreko ukitu homofobo bat. Ingalaterra «mutikoak eta homosexualak eta... erdi-homosexualak diren gizonak» beteriko herrialde baten gisan deskribatzen du Annak, eta bere maizter Ivor eta haren bikotekide Ronnie «beldurrak jotako gizonak» direla esaten du, orduko iritzi homofoboak bere eginez. Garai hartan bi gizonen arteko harremana legez kanpokoak izateak Ivor eta Ronnieren jokabidean eragina izan dezakeela aitortzen duen arren, Annak gaitzetsi egiten du bien artekoa, ez datorrelako bat *benetako gizontasuna*-ri buruz duen ideiarekin.

Norberaren historia idazteaz

Peru Iparragirre

Ugaitz Agirrerren (Usurbil, 1992) estreinako nobela da *Tximeletak bizkarrean* (Susa, 2018). Tona bat alkohol, tabako eta belaiki, pop kultura, historia hurbilari buruzko lezioak, zapalkuntzak, erresistentziak, iragana eta etorkizuna nahasten dira eleberrin honetan. Baina bada gehiago: emaren genealogia bat, norberaren historia bizia idatzi eta berri-dazteari buruzko istorio bat, maitasunaren eta zoriontasunaren nolabaiteko argitze saiakera, sendatze ariketa kontziente bat.

Sara Ballet da eleberriko protagonista, jatorriz Gironellakoa (Katalunia), historia ikasketak Bartzelonan, Dublinen, New Yorken eta Florentzian egina. Lanbidez historia irakaslea da unibertsitatean, Florentzian bertan, eta baita idazlea ere, *Heroiaren kaiera* izeneko

eleberrirakastatsuen ostean bigarrenari heldu nahi eta ezinean dabilena. Etxera itzuli beharko da, ordea, eta hor hasiko da Sararen historian atzera eta aurrera egiten duen kontakizuna, Europan eta bere oroitzen zehar bere bizitzaren arrastoan eta askotariko orbainen uleran.

Historiaz eta identitateaz dihardu oro har. Kulturarekin eta litera-



'Tximeletak bizkarrean'

Egilea: Ugaitz Agirre.
Argitaletxea: Susa.

Catarrhini-tarrak



HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Liburu irakurterraza da, 10 bat urteko aurrerakoentzat; ehun orrialde ditu, eta irudiak.


Udarako irakurketa perfektua dela esango nuke –promoziorako dirudien lelo bat erabiliz–, gidoi simplea duelako, atalka irakurraldia pausatuta daitekeelako, eta hizkuntzaren aberastasuna ziurtatuta duelako.

Asko arriskatu dute liburu honen, helduon esku dagoelako haurrari zer eskaini, eta susmoa dut, tamalez, adin hauetan liburu serioagoak eskaintzeko joera dagoela (eta mardulak: orrialde asko, marrazki gutxi), serioa eta aberasgarria (hezigarria?) bat direlakoan, eta kontrara: dibertigarria, umoretsua edota iragarria den oro baztertzeko, haurraren garapen prozesuan ekarpenik egiteko balio ez lezakeelakoan.

Simplea, ordea, beti ez da *hain*

simple, itxuraz erraza denak trebetasuna eskatu ohi baitu, argitasunarekin batera. Infantilak direnak, edota irudimenaren ariketa direnak, askotan, abilezia ariketak direlako.

Halakoxea iruditu zait liburu honek duen proposamena: dibertigarria, arina eta freskoa (eskaintza literarioaren azken jorak ikusita), baina ez horregatik tuntu edo simplea.



'Gregorio Katarrino'

Idazlea: Juan Cruz Igerabide.
Ilustratzailea: Eider Eibar.
Argitaletxea: Elkar.

turarekin lotura estua du kontakizunak, eta etengabe azaleratzen dira askotariko erreferentziak, kontakizunari kohesioa eta zentzua ematen diotenak. Badago, hala ere, interesgarria iruditutadun hutsune bat: hizkuntzarena. Eta agian ez du izango berebiziko garrantzirik, baina historia zein hizkuntzatan idazten den ere ez zait iruditzen alferreko ausia. Liburuaren hasieran italiarazko hitz solteak ageri dira, argi gera bedi non kokatzen den narrazioa. Liburuaren aurrera egin eta gaitzen da hori guztia. Hizkuntza desageratzen da, nolabait. *Heroiaren kaiera* liburuaren zein hizkuntzatan idatzia dagoen ez da esaten, adibidez, baina editorearen izena italiarra da. Identitatearen zati interesgarri bat da hizkuntzarena, eta Sara Balletek askatzeko korapilo handiagoak dituen arren, hori ukitu ere ez du egiten nobelak.

Arraroa egin zait, azkenean liburuari buruzko liburu bat ere badelako nobela hau, geografian eta denboraleroan zabaltzen den bezainbeste zabaltzen direlako hari narrazioak bestelako testuetan zehar ere. Izan fikziozko liburuak edo egiazko historia eskuliburuak,

narrazioek berebiziko garrantzia dute Sararen minaren genealogian eta sendatzean. Bere «autobiografia» idatzi behar duela erabakitzen du Sarak, bere bizitza, bere iragana ulertuko baditu. Ez da debaldeko ariketa, memoria bi-ziari zentzua eta irtenbidea emateko saiakera da.

Trama konplexua da, eta nabari da idazlearen lana, xehetasunak eman eta aldi berean iradokitzailea izateko gai baita. Exekuzioak ez nau hainbeste konbentzitu, ordea. Liburuaren sartu ahala abiatu hartzen du istorioak eta gustura irakurri dut tarteko zatirik handiena, baina amaiera aldera hartzen duen norabideak frustratu nau, fantasiaren bidezidoretik kontakizunari irtenbide bat ematen diola iruditu baitzait, edo sentsazio hori izan dut, behintzat. Oro har gorabeheratsua iruditu zait nobela, idazkerari dagokionez. Badaude benetan bikainak iruditu zaizkidan pasarte batzuk, ausartak eta ongi eginak, eta beste batzuk azalekoak, utziagoak iruditu zaizkit. Nobelaren konplexutasun agerikoarekin alderatuta, akats gramatikalen ugaritasunak ere harritu nau.

Sen poetikoa ote duzu?



HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Liburu hau Jacques Prevert 1946an *Paroles* liburuan argitaratutako poemetakoa batekin osatu da –tamalez oraindik euskaraz ez dugun liburu; argitaratzaile eta itzultzaileak: ez al zarete konaturatzen munduan izan den poesia *best-seller* bakanetakoa dela?–, irudimena eta sormena gaitzat hartuta, ipuintxo bat proposatzen duena, Prevert zituena dohainen erakusgarri.

Era berean, liburu hau mutua izan zitekeen album ilustratu bat ere bada, inongo nekerik gabe, irudien bidez istorio bat kontatzen diguna, nahiz eta, jakina, langintza honetan ilustratzailea itzultzailea bezala aritu den, eta feldtasuna ahal duen neurrian mantendu duen. Esaterako, protagonista mutiko bat dela erabaki

duenean (testuak irakurlea jartzen du kontakizunaren protagonista rolean, zeharka bada ere), eta gauza bera esan liteke irudimenari *lapurtutako* gainerako guztiarekin.

Beraz, baditugu aldebereko bi adierazpide artistiko, bakoitzak bere baliabideen arabera hunkipena eskaintzen digutenak.

Agian gustatu egingo zaizu, eta inoiz zeure buruari ukatu diozun sen poetikoa eduki baduzula deskubrituko duzu...



'Txori baten potreta egiteko'

Idazlea: Jacques Prevert.
Ilustratzailea: Mordicai Gerstein.
Itzultzailea: Jose Angel Irigarai.
Argitaletxea: Pamiela-Kalandraka.